

Zientzien Errege Akademiako kideak CIC biomaGUNEEn izan dira

Zientzien Errege Akademiako Zientzia Fisiko eta Kimikoen ataleko akademiko numerario eta urgazleek urteko batzarra egin dute Donostiako zentroan

CIC biomaGUNEko lau ikertzaile nagusi Zientzia Zehatz, Fisiko eta Naturalen Errege Akademiako parte dira

Donostia, 2024ko maiatzaren 8a. Biomaterialen inguruko ikerketa kooperatiboko CIC biomaGUNE zentroan, gaur goizean, [Zientzien Errege Akademia](#)ko Zientzia Fisiko eta Kimikoen ataleko akademiko numerario eta urgazleen urteko batzarra egin dute. Erakundearen xedea da Matematika, Fisika, Kimika, Geologia eta Biologia Zientzien eta horien aplikazioen azterketa eta ikerketa sustatzea, baita kultura zientifikoa zabaltzea ere. Haren eginkizun nagusien artean, haren eskumeneko gaitan Gobernuari aholku ematea nabarmentzen da, bereziki herrialdearen garapen zientifiko eta teknologikoan eragina izan dezaketen politika zientifikoen inguruan.

Eguna hasteko, CIC biomaGUNE aurkeztu du haren zuzendari zientifikoak, Aitziber López Cortajarena Ikerbasque irakasleak, eta, gero, zentroko instalazioen bisita egin dute. Jarraian, Zientzien Errege Akademiako Zientzia Fisiko eta Kimikoen ataleko akademiko numerarioek eta urgazleek urteko batzarra egin dute, eta, ondoren, Madrilgo Unibertsitate Konplutentseko Miguel Ángel Martín-Delgado irakasle eta akademiko urgazlearen hitzaldia entzun dute.

CIC biomaGUNEko lau irakasle dira Zientzien Errege Akademiako akademiko: [Luis Liz Marzán](#) Ikerbasque irakaslea akademiko numerarioa da; [Aitziber L. Cortajarena](#) Ikerbasque irakaslea akademiko urgazlea da Fisika eta Kimika atalean; CIC biomaGUNEko zuzendari nagusi [José María Mato](#) akademiko urgazlea da Natur Zientzien atalean; eta Ikerbasque irakasle eta AXAko akademiko [Maurizio Prato](#) atzerriko akademiko urgazlea da Zientzia Kimika eta Fisikoko atalean. Horrez gain, [Fernando López-Gallego](#) Ikerbasque irakaslea Akademia Gazteko akademikoa da.

CIC biomaGUNEri buruz

CIC biomaGUNE Biomaterialen Ikerketa Kooperatiboko Zentroak, zeina Basque Research and Technology Allianceko ([BRTA](#)) kide baita, punta-puntako ikerkuntza egiten du Kimikaren, Biologiaren eta Fisikaren arteko eremuan, eta arreta berezia jartzen du nanoegitura biologikoen eskala molekularreko propietateetan, baita haien aplikazio biomedikoetan ere. 2018an, "María de Maeztu" Bikaintasun Unitate izaera aitortu zioten bikaintasun-baldintzak betetzeagatik, zeintzuen bereizgarri baita dagokion jarduera-esparruan inpaktu handia eragitea eta lehiakortasun-maila handia izatea mundu mailako zientzian.